

Akta/Kronika.

Lezon Energia Komunitatea Eratzeko Prozesua

6. saio irekia.

Euskara Kultura Aretoa [2025/02/10]



1.- Deskribapena

1.1.- Oinarrizko informazioa.

- **Data:** Otsailak 10, astelehena.
- **Saioaren iraupena:** 2 ordu.
- **Ordutegia:** 18:00etatik 20:00etara.
- **Lekua:** Euskara Kultura Aretoa
- **Antolatzaileak:** Iratzerri eta Lezoko udala.
- **Dinamizazio taldea:**
 - Iratzerri eta Oier Etxebarria Gutierrez (Goiener)

1.3.- Parte-hartzaileak: Lezoko bizilagunak norbanako bezala eta herri eragileak

- **Guztira:** 17 pertsona.

- **Genero/sexu banaketa:**

- Emakumeak: 2

- Gizonak: 12

Adinaren arabera:

< 19 urte: 0

20 – 29 urte: 0

30 – 39 urte: 2

40 – 49 urte: 2

50 – 59 urte: 5

60 – 69 urte: 5

70 – 79 urte: 0

2.- Saioaren helburuak:

- 1. Lantaldeak osatzea eta egonkortzea**
- 2. Lantaldeen lehen bileraren emaitzen jarraipena egitea**
- 3. Talde orokorraren xedeak eta estrategiak bateratzea**

2.- Edukiak

2.1.- Iratzerriren azalpenak

Ekaitzek bileraren nondik norakoak azaldu ditu. Aurreko saioaren balorazioa egin zuen eta etorri ez zirenentzako laburpentxo bat. Saio honetan ez da Oier izango egin beharreko lanketan ez delako beharrezkoa ikusi eta beste saio batetarako gordetzea egoki ikusi da. Hurrengo saiorako pilula aukerak eskuragarri jarri dizkigu saioaren amaieran erabakitzeko: Energia pobrezia, eraginkortasuna eta aurrebideragarritasun azterketak.

2.2.- Parte hartzaileen aurkezpena eta etortzeko arrazoia:

Nola gatoz? Zer dakart? Pilota pasa (Zeharkako lana). Sarreran txandaka hitz egin dugu pilota jaso ahala:

- Orokorra izan da talde batean ala bestean egotearen inguruan ditugun zalantzak, baina parte hartu eta ea noraino iristen garen frogatzera etorri garelaz azaldu da.
- Parte-hartzea txikiagoa izatearekin ere kezka azaldu da, baina etorri ez direnek eman dituzten arrazoiak azaldu dira.
- Lantaldeen datu biltegia nola partekatu erabaki behar dela aipatu da ere eta Komunikazio Taldea hortaz arduratuko dela esan da eta bateratzeko saioan azalduko dutela pentsatutakoa. Hala ere, lantaldeak whatsapp taldeen bitartez komunikatzea proposatu da.

3.- Talde lana eta bat egitea.

Parte hartzaileak 3 taldetan banatu dira: Komunikazioan 6 partaide, Juridikoan 3 partaide eta Proiektuetan 3 partaide. 19:15 arteko denbora muga bat jarri dugu gero bateratzea egin ahal izateko:

- **Lantalde Juridikoa:** (Eneko, Amaur, Aitor, Mikel)

Inguruko energia komunitateen estatutu batzuk edo zirriborroak lortu ahal izan dituzte. Pasa den astean bildu ziren informazio aztertzeko eta zalantza josita topatzen dira. Harremanak egin behar dituzte zalantzak argitzeko. Horien artean:

- EBK "absorbitu" terminoa erabili da beste EBK batzuekin bateratzeko aukera mahai gainean jarri. Estatutuetan ez omen du ezer jartzen.
- EBK bat egitea beharrezkoa al da herrian ala Errenterikoaren baitan sar gintezke adibidez?
- Beste EBK-etan ezberdintasuna topatu dute bazkidetza motekin. Errenteriak 3 eta Oiztunek 6. Zergatik hori?
- Nolako EBK behar dugun zehazteko kanpaina herrira zabaltzea lagungarria ote den aipatu da.

- **Komunikazio Taldea:** (Martxelo, Tati, Kristina, Irati, Estanis, Ekaitz)

Aurreko bileratik ateratako ideiak mahai gaineratu dira eta ideia jasarekin jarraitu da. Zenbait ekimen atera dira, baina proiektu baten beharra azpimarratu denean ondorengo gaiak azaldu dira:

- Kooperatiba proiekturik gabe abiatu daitekeen ala ez planteatu da.
- Lehenengo proiektuak ez du zertan sorkuntzakoa izan beharrik, aholkularitza zerbitzu bat izan daitekeela ere azpimarratu da. Finantziakoa izan daiteke arazo. **Udalarekin harremanetan jarri beharra dago bere inplikazioa jakiteko.**
- Sorkuntza proiektuetarako udalaren inplikazioa ezagutzea beharrezkoa litzateke indarrak ongi banatzeko.

Amaitzeko hurrengo astelehenean biltzeko geratu direla esan dute. Iratik, saio horretarako, agerturiko ideiekin taldearen dinamizazioa landuko du. Helburua ordurako datuak partekatzeko plataforma eta zuhaitzaren inguruko hausnarketa egina izatea litzateke eta Ekaitz arduratuko hortaz:

- NextCloud-aren aukera aztertuko dugu Aitzol Saizarri laguntza eskatuz.

- **Proiektuen lantaldea:** (Juanan, Galvez, Mikel eta Jokin)

Proiektuen taldeko kideak formatzen jarraitzeko asmoa azaldu dute, aurreko saioan etorri ezin izan zutenak batik bat. Dena den nahi duenarentzat irekita egongo dira saioak.

Proiektuei dagokionez 2 multzo nagusi ikusten dituzte: Udalarekin ala pribatuekin. Proiektu taldekideek lan komertziala egin behar dutela adierazi dute, harremanak egiteko.

- Udalaren prestutasuna eta inplikazioa jakin beharra dago indarrak behar bezala fokatatzeko. Lizeoko Kolektiboa egin behar ez badute Energia Komunitateak egin dezala. Udal eraikinak? Eskola, Kiroldegia, Igerilekua...
- Lurreko instalazioak egiteko lur sailen jabeak nortzuk diren jakin beharra dago. Altamira Bazen Garaia 2, Darieta urtegia...
- Poligonoetako teilatu pribatuak: Elytra...

- **Bateratzea: (Batzar Orokorra)**

Argi geratu da talde guztietan kezka bera dagoela: Zein da udalaren jarrera? **Hori argitzeko erregistro bidez alkatearekin eta udaleko juridikoekin bilera eskatuko da.** Goinerren aholkularitza zerbitzuaren 1go saioan udalak erantzun beharreko galderak bideratu zitzaizkion udalari eta oraindik ez da erantzunik jaso.

Zalantza asko airean geratu dira, kooperatiba sortzeak merezi ote duen ere mahaigaineratu da. Proiektu bat beharrezkoa dela pentsatzen da. Beste energia komunitateen esperientziak ezagutzea garrantzitsua litzateke, horien artean Lezoren neurriko udalerrri batena batez ere, Erreterria eta Hernaniren adibideak agian ez dira egokienak udalerrrien gaitasunak aintzat harturik.

5.- Hurrengo pausoak

Martxoak 3 astelehenean, hiru aste barru alegia, elkartzea erabaki da. Modu honetan lantaldeak elkartzeko denbora izango da etxeko lanak egin, ideiak eta gaiak jorratzeko

Hurrengo bilerara Oier Etxebarria etortzearekin ados izan gara, zenbait zalantza argitzen laguntzeaz gain formazio pilula berri bat jasotzea interesgarria iruditu zaigulako. Aukeratutako gaia **Energia Pobrezia** izan da. Hurrengo saioan lantaldeen ekarpenetarako astia izan dadin, oraingoan ere, ordu erdi lehenago elkartzea erabaki da: **18:00etik 20:00etara.**

Tokia zehaztuko da deialdiarekin batera, baina printzipioz Euskara Kultura aretoan izango litzateke.